

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua mugimendu arazoak dituzten pertsoneri laguntzeko balio du. Interneten ikusi dugunez, pertsona asko daude beste batzuen menpe egon behar direnak mugitu ahal izateko. Arazo honi konponbidea emateko, gurpildun aulkia barne duen ospitaleko ohe bat diseinatzea erabaki dugu. Horrela gaixoa ohetik bakarrik mugitu ahal izango da eta ez du inoren menpe egoteko beharrik izango. Hauek entomik oheak izango dira.

Entomik oheak bi zatitan banatuta egon beharko dira horretarako. Lehen zati handia ohe osoa izango da, eta mugitu daitekeen zatia gurpildun aulkia. Itxuraz ospitaleko edozein oheren tankera izango du, baina ohearen albo batean gurpildun aulkia txertatuta izango du, eta gaixoa bertan esertzean, ohetik joan ahal izango da gurpildun aulkira.